# la perfumería de Mercadona

2022KO UDAZKENA



ETA, GAINERA...

**JAKIN ZER SERUM** BEHAR DUEN ZURE AZALAK

**AURPEGIA ZAINTZEA ETA *MAKEUPA*** 2 EDIZIO MUGATU 12 EZINBESTEKOREKIN

# Bizarra EZIN HOBETO kentzea

**Hutsik egiten ez duten aholku eta bizar-aitzurrak**

# Erregina-jelea eta propolia

deliplus




Erregina-jelearekin, propoliarekin, manuka-eztiarekin, manuka-olio esentzialarekin, landare-estraktuekin eta C bitaminarekin egina

Manuka

Huntza

Mihilua

C bitamina



# AURKIBIDEA


BIZARRA
EZIN HOBETO KENTZEA



04

AURPEGIRAKO SERUMAK



08

TOUCHE
DE LAVANDE ELIXIRRA




12

EGIN APUSTU
ILEHORIAREN ALDE



16

LET´S MAKEUP!



24

EDERTASUN-PRODUKTU
EZINBESTEKOAK



32



Argitaratzailea: MERCADONA, SA
Fuente del Jarro industrialdea.
Ciudad de Liria, 5. 46988 Paterna / Valentzia
Egilea: Ediciones ELCA
Inprimatzailea: Jiménez Godoy
Lege-gordailua: TO-0789-2008


Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren produktu-aukera estandarrari dagozkio. Espazio-arazoak direla eta, baliteke inoiz produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei.


Doako alea. Debekatuta dago saltzea edo merkaturatzea. © Aldizkariaren titularra MERCADONA SA da. Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debekatuta dago aldizkaria baimenik gabe erabiltzea, osorik zein partzialki, eta/edo erreproduzitzea, bai eta markak eta/edo logotipoak erabiltzea ere.

PEFC
PEFC/14-38-00142
PEFC ziurtagiria
Hori paperean inprimatuta hau kudeaketa jasangarridun baso eta iturri kontrolatuetatik dator
www.pefc.es



# BIZARRA *EZIN HOBETO KENTZEA*

**Bizarra ondo-ondotik eta narritatu gabe kendu nahi duzu?**

Hemen adieraziko dizugu zer tresna behar dituzun eta aholku batzuk emango dizkizugu aldi berean azala zaindu dezazun.

# Bizarra ondo kentzeko oinarrizko aholkuak



- Garbitu aurpegia xaboiarekin eta ur bero edo epelarekin, ilea bigundu eta errazago mozteko.
- Aprobetxatu dutxako unea: ur-lurrunak laguntzen du ilearen folikuluak irekitzen; hala, bizarra kentzea leunagoa gertatzen da, eta ez hain urragarria.
- Zabaldu bizarra kentzeko gel edo aparra mugimendu zirkularrak eginez, azalak ongi xurgatu eta ilea bigundu dadin. Xafla errazago irristatuko da aurpegian, azala narritatu gabe.
- Amaitzeko, garbitu hondarrak urarekin, lehortu emeki, hidratatu eta baretu.




Azal sentikorretarako aparra, kakao-gurinarekin.

Azal normaletarako aparra, kakao-gurin eta E bitaminarekin.

Azal sentikorretarako gela, bidaia-formatuan.

Azal sentikorretarako gela.

# Osatu **bizarra kentzeko zure kita**

Garrantzitsua da bizarra mozten lagunduko dizun produktua azal-motaren arabera aukeratzea: gela, aparra… Eta garrantzitsua da, halaber, bizar-aitzur egokia aukeratzea.

Hona hemen behar dituzun xaflak, bizarra egunero kentzen eta emaitza perfektu eta narritadurarik gabea nahi dutenentzat bereziki pentsatuak.




**Tarte handiagoa dute xaflen artean** hobeto garbitzeko.

## Active 2 eta Active 3 berriz ez kargatzekoak

- ✓ E bitamina eta aloe vera dituen banda lubrifikatzailea.
- ✓ Aurpegiaren formara egokitzen den buru baskulagarria.
- ✓ Gomazko helduleku luze irristagaitza, bizarra eroso mozteko eta edozein angelutatik hobeto kontrolatzeko.













## Precision System 3 berriz kargatzekoa

- ✓ E bitamina eta aloe vera dituen banda lubrifikatzailea.
- ✓ Aurpegiaren formara egokitzen den buru baskulagarria.
- ✓ Gomazko helduleku luze irristagaitza, bizarra erosoago mozteko.









## Precision System 6 berriz kargatzekoa

- ✓ Azal sentikorretarako eta bizar sarrietarako bereziki diseinatua.
- ✓ Aloe vera eta E bitamina dituen banda bikoitz lubrifikatzailea.
- ✓ Aurpegiaren formara egokitzen den buru baskulagarri eta pibotagarria.
- ✓ Diseinu ergonomikoko heldulekua.
- ✓ Doitasunezko ebakitzailea, toki zailetara iristeko (sudur azpira eta belarri aldeko bizarrera).

# *Aurpegirako* serumak




*Hidratazioa, babesa, leheneratzea, birsortzea...*

Zure serum perfektua dugu.
Ezagut ezazu!

## HIDRATA / SERUMA AZIDO HIALURONIKOA & ZERAMIDAK

- Propietate hidratatzaileak eta zahartzearen aurkakoak.
- Egokia mota guztietako azalentzat, baita sentikorrenentzat ere.
- **Nola erabili:** eman aurpegi garbian, egunez eta gauez, ohiko kremaren aurretik; zabaldu masaje leun batez, erabat xurgatu arte.










## SISBELA / SERUMA % 12 SILIZIO

- Propietate sendotzaileak eta birsortzaileak.
- Azal-mota guztietarako egokia.
- **Nola erabili:** eman 6 tanta azala garbi eta lehor duzula, egunez eta gauez, eta zabaldu masaje batez, erabat xurgatu arte.








## REGEN SKIN / RETINOL SERUMA

- Zahartzearen aurkako propietateak eta propietate sendotzaileak.
- Azal ez oso sentikorretarako edo erraz narritatzen ez direnetarako egokia.
- **Nola erabili:** eman 3 edo 4 tanta gauez eta txandakako egunetan azala garbi eta lehor duzula, zure ohiko kremaren aurretik. Ez eman begien eta mukosen inguruan, eremu sentikorrak baitira.

- Gaztetzen duen asteroko tratamendu intentsiboa, azala hidratatuagoa eta argitsuagoa izateko.
- Anpoila bat eguneko (anpoila-erdi goizean, eta beste erdia gauean), adierazitako ordenan.
  - ✓ 1. eguna: **Hidratatu**
  - ✓ 2. eguna: **Sendotu**
  - ✓ 3. eguna: **Leheneratu**
  - ✓ 4. eguna: **Azalaren tonua berdindu**
  - ✓ 5. eguna: **Bete**
  - ✓ 6. eguna: **Eragin antioxidatzailea**
  - ✓ 7. eguna: **Gaztetu**

## SKIN CARE / ANPOILAK HAZKUNDE-FAKTOREAK




**PLASTIKO BIRZIKLATUZ ETA BIRZIKLAGARRIZ EGINDAKO ONTZIA**

## HIDRATA / ANPOILAK AZIDO HIALURONIKO KONTZENTRATUA




- Propietate hidratatzaileak ditu, eta zimurrak leuntzen ditu.
- Azal-mota guztietarako egokia.
- **Nola erabili:** astindu anpoila ireki aurretik, atera edukia eskura, eta eman tratatu beharreko eremuan masaje batez, erabat xurgatu arte.




## ANTIOX / OIL LICOPENO

- Propietate antioxidatzaileak eta zahartzearen aurkakoak. Erabilera jarraituarekin orbanak eta zimurrak leuntzen ditu, eta argitasuna ematen dio azalari.
- Azal-mota guztietarako egokia.
- **Nola erabili:** eman goizez eta gauez, bera bakarrik edo zure ohiko hidratatzailearekin nahasita.



# TOUCHE DE LAVANDE



# elixirra

**Edizio mugatuko bilduma berria,** zure azala zaintzen duten eta erlaxazioa eta ongizate izugarria ematen dioten zazpi produktuz osatua.



# TOUCHE DE LAVANDE elixirra









## Ilea lehortzeko turbantea

✓ Erosoa eta arina, ileko hezetasuna kentzeko aproposa.

✓ Berotu aldez aurretik mikrouhin-labean, ilerako tratamenduen eraginkortasuna hobetzeko.

## Bainurako gela Aparra

✓ Astindu eta eman nahi adina, ontzia bertikal dagoela.

✓ Zabaldu azal bustiaren gainean, eta garbitu urarekin. Gozatu aparraren aromaz eta erlaxazio-efektuaz.



## 2 batean belakia

✓ Alde leunenak aparra sortzen du gelaren laguntzaz.

✓ Alde zimurtsua esfoliatzailea da, eta azaleko zelula hilak, koipea eta zikinkeria kentzen laguntzen du.




## Gorputzerako Olio Lehorra

- ✓ Olio % 100 naturalekin egindako gorputz-elixirra.
- ✓ Gorputzerako olio lehorra. Azala elikatzen, babesten, birsortzen eta hidratatzen du.




## Eskuetarako Xaboi Esfoliatzailea

- ✓ Eskuak emeki garbitzen eta esfoliatzen ditu.
- ✓ Azal zainduaren sentsazioa uzten du.




## Eskuetarako Krema

- ✓ Hidratatu eta lurrindu egiten du.








## Eau de Parfuma

- ✓ Izpiliku fresko eta dotorea ezin hobeto nahasirik dator Mediterraneoko lore zuri adierazgarrienen krema-testura biziarekin eta lurrin-usain liluragarri eta sentsual honen ahalmen lasaigarria inguratzen eta areagotzen duten akorde beroekin.




# EGIN APUSTU ilehoriaren alde

**Ezagutzen duzu amoniakorik gabeko Permanente Colorcor?** Ile zuriak estali eta ilea leun eta distiratsu uzten duen tindua. Etxean nola eman erakutsiko dizugu. Erraza da. Aukeratu zure errauts-koloreko horaila. Kolore iraunkorra lortuko duzu, laranja-islarik gabea, eta adats zaindu eta bizia.

# Permanente Colorcor

## % 0 AMONIAKO

Amoniakorik gabeko kolorazio-formula bat du, argan-, jojoba- eta karite-olioz egina. Plexrepair teknologiari esker, emaitza paregabea du, ilearen barne-egitura leheneratzen baitu eta hausturarekiko erresistentzia areagotzen.







### ESTUTXEAK HAUEK DITU:

- ✓ Errebelatze-emultsioa duen ontzi aplikatzailea (A).
- ✓ Koloreztatze iraunkorreko krema duen hodia (B).
- ✓ Koloreztatu osteko tratamendu nutritiboa duen zorroa (C).
- ✓ 5 onura dituen seruma. Berehalako distira ematen du eta puntak zigilatzen laguntzen du, ilea polit eta distiratsu gera dadin (D).
- ✓ Eta eskularru-pare bat.

# Badakizu nola tindatu ilea etxean?

Ezinbestekoa da jarraibideen liburuxka irakurtzea eta alergia-testa egitea produktua erabili baino 48 ordu lehenago.

## NOLA ERABILI

### 1 PRESTATZEA

- Estali sorbaldak toalla batekin, eta jantzi eskularruak.
- Sartu koloreztatze iraunkorreko krema errebelatze-emultsioa duen aplikagailuan.
- Itxi ontzia eta astindu indarrez, nahaste homogeneo bat lortu arte.
- Apurtu aplikagailuaren punta nahastea prestatu eta berehala, eta eman ilean.

### JARTZEA

**A aukera. Antzeko tonu batekin tindatutako ilean.**

- Aplikatu nahastea ile lehorraren gainean. Banatu produktua sustraietan, ilea bereiziz aplikagailuaren puntarekin lagunduta. Estali sustrai guztiak, eta utzi eragiten 20 minutuz. Ile zuri asko izanez gero, utzi 25 minutuz.
- Zabaldu gainerako produktua ilearen erdialdetik puntetara. Eman masaje arin bat, eta utzi 10 minutuz eragiten. Guztira 30 minutuz eduki behar da produktua, eta, ile zuri asko izanez gero, 35 minutuz.

**B aukera. Ile naturalean, duela 3 hilabete baino gehiago tindatutako ilean edo emango den kolorearen oso kolore desberdina duen ilean.**

- Prozedura bera. Aldaketa bakarra da produktu guztia jarraian eman behar dela, itxaron gabe, lehenengo sustraietan eta, berehala, erdialdetik puntetara.
  Utzi 30 minutuz eragiten, eta, ile zuri asko izanez gero, 35 minutuz.





### 2 URAREKIN GARBITZEA

- Itxaron beharreko denbora igarotakoan, kendu produktua ur pixka batekin, eta eman masaje leun bat.
  Ondoren, garbitu ur epel ugarirekin, ura garbi atera arte. Garbitu bi aldiz xanpuarekin, produktu-hondar guztiak kendu arte.
- Aplikatu tratamendu nutritiboa + Plexrepair, eman masaje arin bat, eta utzi eragiten 2 edo 3 minutuz. Kendu urarekin, eta gorde tratamendutik geratu zaizuna ilea hurrengo tindatzen duzunerako.





### 3 AKABERA

- Amaitzeko, jarri 5 Onurako serumaren tanta batzuk eskuetan, eta banatu uniformeki ilearen erdialdetik puntetara, sustraietan eman gabe. Doitu dosia ilearen luzeraren arabera.
- Ile hezean eta lehorrean eman daiteke.









HAU DARAMA MODELOAK: PERMANENTE COLORCOR % 0 AMONIAKO 8.1

**Aurkitu zure horail perfektua.**

Bi tonuren artean zalantzan bazabiltza, hautatu beti argiena.







HAU DARAMA MODELOAK: PERMANENTE COLORCOR % 0 AMONIAKO 9.1

# *Mask Matizatzailea*

## Ile horailak




**Zure ileko isla horixkak desagerrarazi nahi dituzu?**
Probatu banbuaren ikatz aktiboa daraman maskara beltza, tonu horailak ñabartzen baititu eta platino-efektua indartzen.

# *ULTRA PLATINUM MASK MATIZATZAILEA*

Tonu horixkak eta laranjak unean neutralizatzen dituen eta ilearen platino-efektua areagotzen duen tratamendu ultramatizatzailea.

Azaia eta banbuaren ikatz aktiboa ditu formulan, eta, horri esker, ilea elikatzen eta leuntzen du, eta distira ematen dio.





## NOLA ERABILI

Ilea garbitu eta xukatu ondoren, zabaldu maskara uniformeki, sustraietatik puntetara, ile guztian ondo banatu arte.

Ez eman buru-azalean.

**Utzi eragiten ile-kolorearen eta nahi duzun bizitasunaren arabera:**

✔ 1 minutuz, platino-koloreko ileetan eta oso koloregabetuta daudenetan.

✔ 2 edo 3 minutuz, ile horail argietan.

✔ 4 edo 5 minutuz, laranja-koloreko ileetan eta ile grisaxketan.

Ez eduki 5 minutu baino gehiago.

Kendu iletik ur ugarirekin, eta garbitu ondo eskuak.

# ULTRA PLATINUM MASK MATIZATZAILEA

**Norentzat da maskara hau?**

Platino-efektua gustuko duten ile horail eta dekoloratua dutenentzat. Mask Matizatzailea erabilita, berehala neutralizatuko dituzte isla horixkak eta laranjak.



AURRETIK



ONDOREN

## GOGORATU

Ez ukitu begiak eta mukosak produktuarekin.
Ez ukitu arropa produktuarekin, orbanak utz baititzake.
Produktua erabili ondoren orbanak agertzen badira gainazaletan edo azalean, garbitu berehala ur ugarirekin.

## AHOLKUA

- Erabili Ultra Platinum Mask Matizatzailea ilea horail mantentzeko. Laranja-kolorearen eta kolore horixken aurka duen efektuari esker, gehiago iraungo dizu platino-horail polit horrek.
- Astean behin erabiltzea gomendatzen da. Ez da gomendatzen egunero erabiltzea, hobe baita pixkanaka matizatzen joatea, emaitza ezin hobea izateko.

# Tanpoiak

## % 100 kotoia

SUPER PLUS




REGULAR

SUPER

# Let's Makeup!



## 1. looka – Azal perfektua

Aurpegiko azala uniforme eta inperfekziorik gabe izateko behar duzun guztia du Especial Maquillaje bildumak. **Udazken honetan, eman akabera zaindua zure azalari.**

## No Transfer makillajea

- ✓ Estaltzeko ahalmen handia duenez, denbora gehiagoan irauten du hondatu gabe.
- ✓ Egokia da azal-mota guztietarako, lehorretarako ere bai, betiere aldez aurretik hidratatzen baldin badira.
- ✓ Iraupen luzeko *No Transfer* makillaje jariakorra.
- ✓ Eman belakiarekin, brotxarekin edo hatzekin.

## Matte Mousse makillajea

- ✓ Zeta-ukitua, estaldura ona, testura arina eta akabera matetzailea.
- ✓ Azal normal eta koipetsuetarako bereziki formulatua.
- ✓ Egunean zehar distirak kontrolatzen laguntzen du, eta aurpegia perfekzionatzen du.




## Primer poros

- ✓ Poroak eta keinu-marra txikiak estaltzen ditu.
- ✓ Testura krematsua du, kolore pitin batekin, eta akabera mate leuna. Aurpegia perfekzionatzen duen geruza ikusezin bat sortzen du.
- ✓ Eman makillaje-oinarriaren aurretik, ekintza perfekzionatzailea lortzeko.

## Camouflage zuzentzailea

- ✓ Mota guztietako azaletarako egokia, begi-zulo ilunenak eta gorriuneak ere estaltzen dituena. Estaltzeko ahalmen handia duenez, orinak eta tatuajeak ere estaltzen ditu.
- ✓ Akabera natural eta argitsua.
- ✓ Bi tonu aukeran.
- ✓ Eman kantitate txiki bat zuzendu beharreko eremuan, eta lausotu brotxa batekin edo hatzekin ukituak eginez.



## 2. looka - Udazken amaigabea

# Aurretik eta ondoren



Especial Maquillaje bildumako produktu guztiek estaltzen, berdintzen eta perfekzionatzen dute zure azala. Orbanak, orinak eta tatuajeak ere estaltzen dituzte.

**Zetazko azala, iragazkirik gabe.**

# *Beauty List*



## 1. LOOKA – *Azal pearfektua*




- [ ] Primer Poros
- [ ] 01 zenbakiko Camouflage zuzentzailea
- [ ] No Transfer makillajea



- [ ] Eguzki-hautsak
- [ ] Bekainetarako mikroprofilatzailea (argia)
- [ ] 02 zenbakiko Satin koloretea




- [ ] 03 zenbakiko Mate begi-itzala
- [ ] 10 eta 11 zenbakiko Satin itzalak
- [ ] Long Xtrem maskara




- [ ] 07 zenbakiko ezpainetako arkatza, gerezi-kolorekoa
- [ ] 08 zenbakiko ezpainetako Mate fluidoa



## 2. LOOKA – *Udazken amaigabea*




- [ ] Primer Poros
- [ ] 01 zenbakiko Camouflage zuzentzailea
- [ ] Matte Mousse makillajea



- [ ] Eguzki-hautsak
- [ ] Bekainetarako mikroprofilatzai-lea (argia)
- [ ] 02 zenbakiko Mate koloretea




- [ ] 01 eta 03 zenbakiko Mate itzalak
- [ ] Long Xtrem maskara




- [ ] 07 zenbakiko ezpainetako Mate fluidoa


Hidratazioa
zure gorputzerako
Cream
VAINILLA
BAUNILHA
deliplus

# Bilduma




3 IN 1 BILDUMAKO 138, 139, 140, 141 ETA 142 ZENBAKIKO AZAZKAL-ESMALTEAK

**Kolore guztia, gogor-efektua eta lehortze bizkorra**

Bi geruza emanda, azazkal perfektuak izango dituzu,
udazkena estilo handiz hasteko prest.

# BODY SPRAY-A
## Zikin-orbanen aurkakoa




## Iraupen eta bizitasun handiagoa

BEAUTY EZINBESTEKOAK




## My Moment 12 produktu ezinbesteko, aurpegirako

Aurpegia zaintzeko hamabi edertasun-produktu. Azal-mota guztietarako egokiak.




**Best Lashes**
Betileak indartzekoa.

**NOLA ERABILI**

Eman goiko betazalean, eyeliner bat izango balitz bezala, begia ukitu gabe.



**Gua Sha**
Aurpegian masajea ematekoa. Azal sendo, distiratsu eta erlaxatua.

**NOLA ERABILI**

Azala hidratatua duzula, pasatu Gua Sha eremu hauetatik:

**A** Lepoa; erabili alderdi laua, eta mugitu gorantz.

**B** Aurpegi-obaloa; eraman kokotsaren erditik belarrira.

**C** Masailak; eraman masailalbo-hezurretik lokira.

**D** Bekokia; begitartetik ilearen sorburura.




Goranzko mugimendu bakoitza 3 aldiz egitea gomendatzen da. Bukatu ondoren, garbitu Gua Sha urarekin eta xaboiarekin, eta ondo xukatu.




**First Cream**
Leheneratzaile nutritiboa. Azal hidratatu eta malgua.







**Bright Eyes**
Begi-ingurukoa, begi-zuloen aurkakoa.



**Night Repair**
Azal-berriztatzailea. Tonu uniforme eta argitsua azalean.

**Rescue Face**
Aurpegirako esfoliatzaile berriztatzailea. Azal garbi eta berriztatua.




**Perfection Lotion**
Zelula-berriztatzailea, inperfekzioak kentzen eta pH-a orekatzen duena.




**My Darling Essence**
Azal babestua. Zelula-antioxidatzailea.




**Ultimate Serum**
Zelula-oxigenatzaile energetikoa. Azal oxigenatu eta suspertua.










**Primer Serum**
Adinaren aurkakoa, *botox like* eragina. Azal leuna. Zimurrak betetzen ditu.

**Lift Booster**
Berehalako tenkatzailea eta sendotzailea. Azal sendo eta leuna.

**Ultra-Glow Mist**
Superhidratatzailea, argitzailea (aurpegia argiztatzen duen pigmentuduna).

**EDIZIO MUGATUA**




# The 12 Makeup Essentials

**Lip Cream**
Ezpainetako likidoa.
Kolorea eta distira iraunkorrak.

**Lip Gloss**
Ezpainetako distira hidratatzailea.

**Lip Scrub**
Ezpainetako esfoliatzailea, marrubi-aromakoa.

**Lipstick**
Akabera leuna emateko ezpainetako barra.

**Bronzer**
Lortu azal perfektua, inperfekziorik gabea, beti eder egiten gaituen kolore beltzaran naturalaren efektuari esker.

**Lip Liner**
Ezpainak markatzeko arkatza.

**Blush & Highlighter**
Koloretea eta argitzailea, zure makillajeari sakontasuna emateko.

**Eyeliner**
Begietako delineatzaile beltza.

**Eyeshadow Palette + Pintzela**
Begi-itzalen paleta, nahi adina *look* lortzeko.

**Liquid Concealer**
Estaldura handiko eta akabera naturaleko zuzentzailea.

**Makillatzeko belakia**
Ezin hobea mota guztietako makillaje-oinarriak emateko: kremak, hauts trinkoak, hauts solteak eta testura likidoak.


NO+
Zorririk ez
Shampoo
Protect
NO+
3 Action
deliplus
Instant conditioner
Protect
NO+
3 Action
Árbol de Tè
Quassia Amara
Vinagre
deliplus
Loción pediculicida
Rápida
Eficacia
NO+
Piojos ni liendres
2 minutos
Acción anti-resistencia
deliplus
Loción pediculicida
Rápida
Eficacia
NO+
Piojos ni liendres
Acción anti-resistencia
deliplus




# Gaztetu zure azala

E bitaminazko eta azido hialuronikozko esferak